Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera
Yanguas y Miranda, 27-1.
31003 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es



**1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean arautzen direnak (eremuak, erabilera ofiziala eta irakaskuntza) arrazoi honengatik daude araututa foru legez:**

a) Foru legez arautu behar direla dioelako Foruaren Hobekuntzak, hau da, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoak.

b) Espainiako Konstituzioan ezartzen delako horrela dagoela egin beharra, hau da, lege mailako arau baten bidez.

c) Foru dekretu baten bidez agindu zelako horrela egin behar zela, hau da, foru legez egin behar zela.

b) Foru lege baten bidez arautzea erabaki zelako, baina ez dago horretara behartzen duen araurik.

**2. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea honela dago egituratuta:**

a) Bi titulu ditu: xedapen orokorrak (I. titulua); erabilera arrunta eta ofiziala (II. titulua).

b) Bi titulu ditu: xedapen orokorrak (I. titulua); hizkuntza eremuak (II. titulua).

c) Lau titulu ditu: xedapen orokorrak (Atariko titulua); eremu euskalduna (I. titulua); eremu mistoa (II. titulua); eremu ez-euskalduna (III. titulua).

d) Lau titulu ditu: xedapen orokorrak (Atariko titulua); erabilera arrunta eta ofiziala (I. titulua); irakaskuntza (II. titulua); komunikabide sozialak (III. titulua).

**3. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen arabera:**

a) Gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

b) Nafarroako berezko hizkuntza euskara da, eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza hori jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

c) Nafarroako berezko hizkuntza gaztelania da, baina, hala ere, herritar guztiek dute euskara jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

d) Euskarari buruzko Foru Legean ez da adierazten zein den edo diren Nafarroako berezko hizkuntzak.

**4. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen arabera:**

a) Urtero, behar duen laguntza ekonomikoa eman beharko dio Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari.

c) Nafarroako Parlamentuak, lau urtean behin, hizkuntzaren arloan itzal handiko pertsona bat izendatu beharko du Euskaltzaindiaren zuzendaritza batzordeko kide izan dadin.

c) Hizkuntza arauei dagokienez, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala.

d) Ez da Euskaltzaindiaren aipamenik egiten Euskarari buruzko Foru Legean.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera
Yanguas y Miranda, 27-1.
31003 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es



**5. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen arabera:**

a) Euskarabideak komunikabide sozial pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko du.

b) Nafarroako Gobernuak komunikabide sozial publikoetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko du.

c) Administrazio publikoek komunikabide sozial publiko eta pribatuetan euskarak gero eta presentzia handiagoa izan dezan sustatuko dute.

d) Ez da komunikabideen aipamenik egiten Euskarari buruzko Foru Legean.

**6. Irakaskuntzari buruzko xedapenak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean (aukeratu baieztapen zuzena):**

a) Euskarari buruzko Foru Legeak xedapen orokor batzuk bakarrik ematen ditu irakaskuntzari buruz; hiru artikulu, hain zuzen.

b) Xedapen orokor batzuk badaude ere, eremuka daude bereizita irakaskuntzari buruzko xedapenak.

b) Irakaskuntzari buruzko xedapenek ez dute aldaketarik izan Foru Legea 1986an onetsi zenetik.

d) Euskarari buruzko Foru Legak ez du irakaskuntzari buruzko xedapenik.

**7. Honakoei zaie aplikatzekoa azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua:**

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta berarekin lotura duten edo bere menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateei.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, Nafarroako toki entitateei eta administrazio publiko horiekin lotura duten edo beraien menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateei.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, Estatuko Administrazioari, Nafarroako toki entitateei eta administrazio publiko horiekin lotura duten edo beraien menpeko diren erakunde publiko eta zuzenbide publikoko entitateei.

d) Aurreko guztiak okerrak dira.

**8. Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, ele biko lanpostuetan egiaztatu beharreko euskararen ezagutza-maila, lanpostuaren ezaugarrien arabera, hauetakoren bat izanen da:**

a) B1, B2 edo C1.

b) B1, B2, C1 edo C2.

c) A1, A2, B1, B2 edo C1.

d) A1, A2, B1, B2, C1 edo C2.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera
Yanguas y Miranda, 27-1.
31003 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es



**9. Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, ele biko idazketaren alderdi formalei dagokienez, honakoa ezartzen da, errotulazioari dagokionez bereziki:**

a) Ele biko testuek bi hizkuntzetan tamaina eta ikusgarritasun bera izanen dute.

b) Testua bi zutabetan idazten bada, ezkerrean euskarazkoa eta eskuinean gaztelaniazkoa jarriko dira.

c) Testua goitik behera idazten bada, goialdean euskarazko testua jarriko da eta behealdean gaztelaniazkoa.

d) Aurreko guztiak ezartzen dira.

**10. Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen diren hizkuntza planak direla-eta:**

a) Foru Dekretuak sei hilabeteko epea ematen du plan horiek prestatzeko.

b) Foru Dekretuak sei hilabeteko epea ematen du plan horiek foru aginduz onesteko.

c) Foru Dekretuak urtebeteko epea ematen du plan horiek prestatzeko.

d) Foru Dekretuak urtebeteko epea ematen du plan horiek foru aginduz onesteko.

**11. Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuari honakoa dagokio:**

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen artean koordinazio-organo moduan aritzea Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikan eta plangintzan ezarritako ildo estrategikoak gauzatzeko.

b) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuei aholkua ematea eta haiekin elkarlanean aritzea Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikan eta plangintzan ezarritako ildo estrategikoak gauzatzeko.

c) Nafarroako toki entitateei aholku eta laguntza ematea Foru Dekretuak xede duenean.

d) Aurreko guztiak dagozkio.

**12. Azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuak hau ezartzen du ele biko lanpostuei buruz:**

a) Plantilla organikoetan ezarritako ele biko lanpostuak kopuruz nahikoak izanen dira Euskarari buruzko Foru Legean eta 103/2017 Foru Dekretuan ezarritako helburuak bermatzeko.

b) Ele biko lanpostu bat hartzen dutenek lanpostu horren hizkuntza beharrak bete beharko dituzte.

c) Ele biko lanpostuak, baldin eta betetzeko zailak direla jotzen badira, hizkuntza eskakizunik ez duten pertsonek bete ditzakete aldi baterako.

d) Aurreko guztiak ezartzen ditu Foru Dekretuak.

**13. Euskararen Nafar Institutuaren Estatutuen arabera, Euskarabidea departamentu honi atxikita dago:**

a) Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari.

b) Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuari.

c) Hezkuntza Departamentuari.

d) Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari.

**14. Euskararen Nafar Institutuaren Estatutuen arabera, Euskarabidearen zerbitzuak hauek dira:**

a) Hiru zerbitzu: Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua, Egiaztapenen Zerbitzua eta Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua.

b) Bi zerbitzu: Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua, eta Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua.

c) Bi zerbitzu: Euskararen Sustapenaren Zerbitzua eta Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua.

d) Hiru zerbitzu: Euskararen Sustapenaren Zerbitzua, Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua eta Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua.

**15. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren Estatutuen arabera, erakundearen zuzendaritza organoak hau(ek) d(ir)a:**

a) Euskararen Nafar Kontseilua.

b) Euskararen Nafar Kontseilua eta zuzendaritza-kudeatzailetza.

c) Euskararen Nafar Kontseilua eta Euskarabidearen Gobernu Kontseilua.

d) Euskarabidearen Gobernu Kontseilua eta zuzendaritza-kudeatzailetza.

**16. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren Estatutuen arabera, Euskararen Nafar Kontseilua:**

a) Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren aginte erakundea da, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikarako irizpideak ezartzen dituena.

b) Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren parte-hartze organoa da, eta, euskararen plangintzan eta sustapenean, Nafarroako Gobernuaren organo aholku-emailea da.

c) Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika garatzeko erakunde autonomoa da, gizartearen parte-hartzeari bide ematen diona.

d) Nafarroako Gobernuak euskararen plangintzarako eta sustapenerako duen erakunde iritzi-emailea da; Euskararen Nafar Kontseiluaren irizpenak lotesleak dira.

**17. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren Estatutuek aldaketa bat izan zuten 2017an. Aldaketa horrekin:**

a) Handitu egin zen Euskararen Nafar Kontseiluari ezarritako eginkizunen kopurua.

b) Aldatu egin zen Euskararen Nafar Kontseiluaren osaera.

c) Euskarabideak utzi egin zion Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari atxikita egoteari.

d) Lehengo biak bakarrik dira zuzenak: a) eta b).

**18. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren Estatutuen arabera, Itzulpen Atalaren kokapen organikoa hau da:**

a) Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzuan.

b) Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua.

c) Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua.

d) Itzulpen Atala ez dago Euskarabidearen egitura organikoan.

**19. Euskararen Egiaztapenen eta Prestakuntzaren Atalaren eginkizunen artean honakoa dago:**

a) Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileek euskara ikasteko eta hobetzeko prestakuntza kudeatzea.

b) Euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egitea, prestakuntzara edo hautatze prozesuetara loturikoak.

c) Euskararen Liburutegi Espezializatua kudeatzea.

d) Aurreko guztiak aipatutako atalaren eginkizunen artean daude.

**20. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoaren behin betiko dokumentua honela onetsi zen:**

a) Nafarroako Gobernuaren akordio baten bidez.

b) Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariaren foru agindu baten bidez.

c) Nafarroako Gobernuaren foru dekretu baten bidez.

d) Nafarroako Parlamentuaren foru lege baten bidez.

**21. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoak hartzen duen aldia:**

a) 2015 - 2019

b) 2015 - 2020

c) 2016 - 2021

d) 2016 - 2019

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera
Yanguas y Miranda, 27-1.
31003 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es



**22. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoak**

a) 5 ardatz estrategiko ditu.

b) 6 ardatz estrategiko ditu.

c) 7 ardatz estrategiko ditu.

d) 8 ardatz estrategiko ditu.

**23. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoko ardatz estrategikoen lehen blokean hauek daude:**

a) Gizarte erabilera, hiztun berriak eta zerbitzu publikoak.

b) Prestigioa eta erakargarritasuna, eta ekonomia eragilea.

c) Gizarte erabilera eta plangintza publikoa.

d) Hizkuntza esparrua, eta prestigioa eta erakargarritasuna

**24. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoaren arabera, zein ardatz estrategikotan dago "Nafarroako Administrazioaren departamentuak hobeki gaitzea gizarteak zerbitzua euskaraz jasotzeko"?**

a) Plangintza publikoa izeneko ardatz estrategikoan.

b) Hiztun berrien trebatzea izeneko ardatz estrategikoan.

c) Gizarte erabilera izeneko ardatz estrategikoan.

d) Zerbitzu publikoak izeneko ardatz estrategikoan.

**25. Inkesta Soziolinguistikoa:**

a) Urtero egiten da, eta Nafarroako biztanle guztien gaineko datu demolinguistikoak ematen ditu.

b) Bost urtean behin egiten da, eta 16 urteko eta gehiagoko biztanleen gaineko datu demolinguistikoak ematen ditu.

c) Hamar urtean behin egiten da, eta 2 urteko eta gehiagoko biztanleen gaineko datu demolinguistikoak ematen ditu.

d) Urtero egiten da eta 5 urteko eta gehiagoko biztanleen gaineko datu demolinguistikoak ematen ditu.

**26. Azken Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera, euskaraz ongi hitz egiten duten nafarren ehunekoa hau da:**

a) % 10 baino gutxiagokoa.

b) % 10 eta % 15 artekoa.

c) % 15 eta % 20 artekoa.

d) % 20 baino gehiagokoa.

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua
Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera
Yanguas y Miranda, 27-1.
31003 PAMPLONA/IRUÑA
Tel. 848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es



**27. Azken Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera, Nafarroako eremu euskaldunean euskaraz ongi hitz egiten duten biztanleen ehunekoa hau da:**

a) % 40 baino gutxiagokoa.

b) % 40 eta % 50 artekoa.

c) % 50 eta % 60 arteko.

d) % 60 baino gehiagokoa.

**28. Azken Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera, Nafarroako 16 eta 24 urte tarteko gazteen artean euskaraz ongi hitz egiten dutenen ehunekoa hau da:**

a) % 20 baino gutxiagokoa.

b) % 20 eta % 30 artekoa.

c) % 30 eta % 40 artekoa.

d) % 50 baino gehiagokoa.

**29. Azken Inkesta Soziolinguistikoaren datuen arabera, euskararen erabilera Nafarroan azken bi hamarkadetan:**

a) Behera joan da.

b) Berdin dago.

c) Gutxi bada ere, hazi da.

d) Bikoiztu da.

**30. Euskararen erabilera neurtuaren gaineko datu sistematikoak eman dituena hau da:**

a) Euskararen Kale Erabileraren Neurketa.

b) Erabileraren Mapa Soziolinguistikoa.

c) Inkesta Soziolinguistikoa.

d) Erabileraren Azterketa Soziolinguistikoa.

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Instituto Navarro de Administración Pública
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua

## HOJA DE EXAMEN / *AZTERKETA ORRIA*

D.N.I. / N.A.N.

| | |
|---|---|
| 1.er APELLIDO / *1. DEITURA* | |
| 2.º APELLIDO / *2. DEITURA* | |
| NOMBRE / *IZENA* | PLANTILLA |
| PUESTO / *LANPOSTUA* | |
| DEPARTAMENTO/SERVICIO / *DEPARTAMENTUA/ZERBITZUA* | |
| FECHA / *EGUNA* | |

marque así
*honela markatu*

así no marque
*honela ez markatu*

### PRIMER EJERCICIO

| Nº | Respuesta | Nº | Respuesta |
|---|---|---|---|
| 1 | A | 26 | B |
| 2 | D | 27 | D |
| 3 | A | 28 | B |
| 4 | C | 29 | C |
| 5 | C | 30 | A |
| 6 | B | 31 | |
| 7 | B | 32 | |
| 8 | A | 33 | |
| 9 | D | 34 | |
| 10 | C | 35 | |
| 11 | D | 36 | |
| 12 | D | 37 | |
| 13 | A | 38 | |
| 14 | B | 39 | |
| 15 | D | 40 | |
| 16 | B | 41 | |
| 17 | D | 42 | |
| 18 | C | 43 | |
| 19 | D | 44 | |
| 20 | A | 45 | |
| 21 | D | 46 | |
| 22 | C | 47 | |
| 23 | A | 48 | |
| 24 | D | 49 | |
| 25 | B | 50 | |

### SEGUNDO EJERCICIO

## FORMA DE CUMPLIMENTAR LA HOJA DE RESPUESTAS

LEA LAS INSTRUCCIONES QUE SE DAN EN ESTA HOJA Y ESPERE POR FAVOR HASTA QUE EL EXAMINADOR DE SU AULA DÉ LAS EXPLICACIONES.

Esta hoja será corregida por medio de ordenador. Por lo tanto es muy importante que rellene los datos que se le solicitan de forma clara y sin errores.

Tiene que rellenar los datos que se le piden antes del comienzo de la prueba, cuando lo indique el examinador correspondiente a su aula.

## *ERANTZUN ORRIA NOLA BETE*

*IRAKURRI ITZAZU ORRI HONETAN EMATEN ZAIZKIZUN OHARRAK ETA ITXARON EZAZU, MESEDEZ, ZURE GELAKO AZTERTZAILEAK AZALPENAK EMATEN HASI ARTE.*

*Erantzun orri hau ordenagailu bidez zuzenduko da. Oso garrantzitsua da, beraz, bertan idatziko dituzun datuak garbi eta okerrik egin gabe jartzea.*

*Azterketa egiten hasi baino lehen bete behar dituzu eskatzen zaizkizun datuak zure gelako aztertzaileak esaten duenean.*

# No escriba nada hasta que lo indique el examinador

# *Ez idatzi ezer aztertzaileak esan arte*

En la parte superior derecha de la hoja de respuestas debe figurar su número de DNI como se refleja en los ejemplos siguientes:

*Erantzun-orriaren goikaldean eskatzen zaizkizun datu guztiak bete itzazu ondorengo adibideari jarraituz:*










Marque la casilla correspondiente a cada dígito y como figura en el ejemplo. Cualquier otra forma es incorrecta.
Si su D.N.I. no llena 8 dígitos, en la parte izquierda complételos con 0.

NOTA: RECUERDE QUE ESTOS SON EJEMPLOS Y EN NINGÚN CASO TRANSCRIBA LOS MISMOS A SU HOJA DE RESPUESTAS.

*Erantzun-orriaren goikaldeko eskuinaldean zure NAN zenbakia eman behar duzu ondorengo adibideetan azaltzen den bezala.*
*Zure nortasun-agiriak ez badu zortzi zenbaki, ezkerreko aldean zeroak jarriz osatu.*

*OHARRA: KASU HAUEK ADIBIDEAK DIRA, BERAZ, EZ IDATZI HORIEK ZURE ERANTZUN-ORRIAN.*

SEGUNDO EXAMEN:

- Consistirá en la elaboración y justificación de un programa de enseñanza, elegido a sorteo entre los temas 6 a 10 del temario.